



## KOSTUEN EGITURA

Gure enpresak zerbitzuak eskaintzen dituenek, kostu aldakorrik ez dugu izango, kostu finkoak soilik izango ditugu. Kostu finko moduan, pabeioiaren alokairua, langileon soldata eta sozietate gaineko zerga izango ditugu. Gainera, lehenengo urtean, gure zerbitzua eskaintzeko zenbait material beharko ditugunez, horiek ere kostu finkoak izango liratezke, 12 hilabetean zehar bakarrik izango ditugunak. Beste urteetan, agian, berrikuntzaren bat egin beharko dugu, besteak beste; hautsi den materialen bat berriro ere erosi beharko dugu edo zerbitzua hobetzen lagunduko digun beste materialen bat erosi beharko dugu baliagarri egingo zaiguna. Beraz, beste urteetan horren azterketa bat egin beharko genuke.

Jarraian txertatutako taulan, aurreikusi ditugun kostu finkoak azaltzen dira;

KOSTU FINKOAK:			KOSTU FINKOAK: INBERTSIOAK:			
KONTZEPTUA:	KOSTUA:	GUZTIRA:	KONTZEPTUA:	KOSTUA:	KANTITATEA:	GUZTIRA:
Alokairua	650,00 €	7.800,00 €	Hanketako pesa	20,00 €	5	100,00 €
Soldatak	950,00 €	3.800,00 €	Eskumuturretako pesa	20,00 €	5	100,00 €
SGZ	28%	6.785,80 €	Mankuerna	40,00 €	10	400,00 €
			KT	35,00 €	6	210,00 €
			Esterilla	10,00 €	14	140,00 €

G-MEL S.KOOP.

Ezintasunak, trebetasun



			Bizikleta estatikoa	400,00 €	2	800,00 €
			Korri egiteko zinta	600,00 €	2	1.200,00 €
			Banda elastikoa	15,00 €	14	210,00 €
			Dominadak egiteko barra	50,00 €	1	50,00 €
			Gorputzaren enborra indartzeko barra paraleloa (flexioak zutik egiteko)	60,00 €	1	60,00 €
			<b>GUZTIRA:</b>	<b>3.270,00 €</b>		



Asteazkenean, aholkularitzako 25 zerbitzu eskainiko ditugu guztira, egun bakoitzean 5 zerbitzu eskainiz eta saio bakoitza ordubetekoa izanez. Administrazio lanetan ere jardungo dugu, baina hori ez denez eskaintzen dugun zerbitzu bat, ez dugu zerbitzu moduan kontatu. Bestalde, asteazkenean kiroleko zerbitzuan, 300 zerbitzu eskainiko ditugu guztira, 60 zerbitzu eskainiz arratsalde bakoitzean 10 pertsonako 6 talde baitaude. Beraz, aholkularitza eta kirol zerbitzuak kontuan hartuz, 325 zerbitzu eskainiko ditugu asteazkenean.

Hurrengo taulan azaldutakoa irudikatua ageri da;

	<b>Astelehena</b>	<b>Asteartea</b>	<b>Asteazkena</b>	<b>Osteguna</b>	<b>Ostirala</b>	<b>Guztira</b>
<b>Aholkularitza zerbitzua</b>	5	5	5	5	5	25
<b>Admnistratiboa (ez-zerbitzua)</b>	0	0	0	0	0	0
<b>Kirol zerbitzua</b>	60	60	60	60	60	300
<b>Zerbitzuak guztira</b>	65	65	65	65	65	<b>325</b>

G-MEL S.KOOP.

Ezintasunak, trebetasun



Kostu finkoei dagokienez, alokairuagatik 650€ ordaindu beharko ditugu hilean, urtean 7.800€-ko kostua izango litzatekeena. Langile bakoitzaren soldata 950€-koa izango da, lau langile garenez, hilabetean 3.800€-ko soldata jasoko dugu, urtean 45.600€. Materialari erreparatuz, 5 hanketako pesa eta beste 5 eskumuturretako pesa erosiko ditugu bakoitza 20€-an, 200.000€-ko gastua izango litzatekeena guztira. 10 mankuerna erosiko ditugu 40€-an, beraz, 400€-ko gastua izango dugu guztira. KT-ak ere erosiko ditugu, zehazki, 35€-an, 210€-ko kostuarekin. 14 esterilla eta beste 14 banda elastiko erosiko ditugu: esterillak 10€an, guztira 140€-ko kostuarekin; eta banda elastikoak 15€-an, guztira 210€-ko kostuarekin. Bizikleta estatikoak eta korri egiteko zintak ere erosiko ditugu, bakoitzetik 2 erosiko ditugu, guztira bizikleta estatikoetan 800€-ko gastua izango dugu 400€ balio baitu bakoitzak. Korri egiteko zintetan aldiz, 1.200€-ko kostua izango dugu, bakoitzak 600€-ko gastua baitu. Bukatzeko, dominadak egiteko barra bakar bat erosiko dugu 50€-an. Gainera, besoak indartzeko, flexioak zutik egiten lagunduko digun barra paralelo bakarra ere erosiko dugu 60€-ko kostua izanik. Guztira materialetan soilik, 3.270€-ko gastua izango dugu. Bestalde, materialeko kostuak asko direnez hilabate batean ordaintzeko, 12 hilabeteetan zehar ordainduko ditugu gastu horiek, hau da, urtean zehar, halere, urtarrilean ordainduko ditugula adierazi dugu eta irizpide horrekin jardun dugu, ikusgarriago izateko.

Hortaz, urtarrilean, 7.720€-ko kostua izango dugu, materiala kontuan hartuta. Gainontzeko hilabete bakoitzean, 4.450€-ko kostuak izango ditugu. Urtean guztira 56.670€-ko kostuak izango genituzke.

Azpian itsatsitako taulan, azaldutako kostuak ikusgarriago ageri dira;





Bukatzeko, eskaintzen ditugun zerbitzu guztiak eta kostuak kontuan harturik, gure zerbitzuak 23,75€-ko kostua izango duela kalkulatu dugu.

Salmenten aurreikuspena	Zerbitzuak gehienez														
Aholkularitza	25	25	0	4	8	10	10	10	8	0	15	20	16	16	<b>167</b>
Kirola	300	300	150	180	200	210	220	210	175	0	250	265	270	265	<b>2995</b>
<b>Zerb. GUZTIRA</b>		325	150	184	208	220	230	220	183	0	265	285	286	281	<b>2.837</b>
<b>Gure zerbitzuaren kostua</b>		23,75 €													

Horren ildotik, irabaziak izan behar ditugula kontuan hartuta, gure zerbitzuei prezio jakin batzuk jarri dizkiegu. Aholkularitza saioei 50€ eta kirol zerbitzuei, aldiz, 25€-ko prezioa jarri diegu. Bezero bakoitza astean bi aldiz joango dela kontuan hartuta, guztira 50€ ordainduko dituzte zerbitzuarengatik.